

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/4/115

Izenburua: EMAKUMEEN SEKZIOKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Datak: 1940-1977

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 12 instalazio unitate

Sortzailea: EMAKUMEEN SEKZIOKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Erakundearen historia:

Falangearen Emakume Atala 1934an sortu zen, militante falangistei eta haien familiei gizarte zerbitzuak emateko. Urte askoan, erregimen berriak baimendutako emakume erakunde ez-erlijioso bakarra izan zen.

1937ko apirilaren 19ko Bateratze Dekretuarekin, Mugimendu Nazionalaren zerbitzu gisa Atalak zituen eskumenak areagotu eta hiru Ordezkaritza Nazional sortu ziren: Emakumeen Atala, emakumea mobilizatzeko eta prestatzeko; Gizarte Laguntza, ongintzazko lanetarako; eta Frontea eta Ospitaleak deiturikoa, gerra fronteetan laguntzeko. Gatazkaren beroan, Gizarte Zerbitzua ere sortu zen (1937ko urriaren 7ko Dekretua). Derrigorrezko prestazioa zen beste zerbitzu publiko batzuetan enplegatuta ez zeuden emakume gai ezkongabe guztientzat.

1939ko abenduaren 28ko Dekretuaren bidez, Emakume Atalak bete beharreko rola instituzionalizatu eta Probintziako Ordezkaritzak sortu ziren, Mugimenduaren Probintzia Buruzagitzei atxikiak. Azaroaren 29ko 3749/64 Dekretuaren bidez, aldatu egin zen erakundearen egitura. Abuztuaren 21eko 2485/70 Dekretuaren bidez, aldaketa gehiago izan ziren: Erregidoretza izandakoen ordez departamentuak sortu ziren eta terminologia falangista zaharkitua eguneratu, erakundea garai berrietara egokitzeko. Egitura horrek berdin jarraitu zuen, harik eta apirilaren 1eko 596/77 Errege Dekretuak Mugimendu Nazionalaren organoak desagerrarazi zituen arte. Emakume Atala Administrazio Zentralari eskualdatu zitzaion eta haren eginkizunak Emakumearen eta Sustapen Orokorreko Zuzendaritza Nagusiak hartu zituen, Lehendakaritza Ministerioko Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetzaren barruan.

1977an Kultura Ministerioa sortu zenean, ordura arte Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetzak izan zituen eskumenak —Emakume Ataletik jasoak— ministerio berri horrek bereganatu zituen.

Nafarroako Artxibo Garaikidean gordetzen den dokumentazio ia guztia Ordezkaritza horren giza baliabideen kudeaketari buruzkoa da; horrez gain, Emakume Atalak antolatutako prestakuntza ikastaroetara joaten zirenen erregistro liburu bakar bat dago.

(Halaber, ikusi fitxa hau: 025 Kulturako Probintzia Ordezkaritza)

Funtsaren antolamendua:

115.01 LANGILERIAREN KUDEAKETA

115.01.01 Espediente pertsonalak

115.01.02 Ordainsariak

115.01.03 Aurreikuspen soziala

115.02 GIZARTE ZERBITZUAK

115.02.01 Prestakuntza politiko eta sozialeko ikastaroak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.